

ALOKAIRUEN BEZEROAK

Gure enpresarako bezeroak 18 urte baino gehiago dituen edozein pertsona izan daiteke. Etxeak alokatzeko berdin du gizona edo emakumea izatea.

BEZERO POTENTZIALAK


Etxebizitzetako logelak alokatzea denez gure helburua, gure bezero potentzialak ikasleak edo gazteak izan ahal dira, hau beraien independentziarako lehen urratsa izanik, logela bat alokatzea etxe bat alokatzea edo erostea baino merkeagoa delako. Gainera, etxebizitzak Bilboko erdialdean egoteak, gazteentzako askoz erosoagoa izango da.

LOKALIZAZIOA

Gure enpresa, orain hasten ari denez, Bizkaian kokatuta dago, Bilbon, beraz Bilbon bizi nahi izatea beharrezkoa izango da.

Gure bulegoa, Gran Via kalean kokatuta dago, Bilboren erdialdean. Gure bezeroei eskeiniko diegun etxeen ondoan kokatuta egongo gara, modu honetan, arazorik badago gure laguntza izango dute.

Horretaz aparte, aliantza egingo dugun enpresa Bilbo erdialdean kokatuta dago. Lokalizazio honi esker, askoz errazagoa izango da guretzat eta gure bezeroentzat.



BIZI-BALDINTZAK

Beste pertonekin bizitzeko gaitasuna izan behar da, etxe barruan jende gehiago biziko delako, eta haiekin ondo konpondu beharko direlako bizimodu lasai bat izan ahal izateko. Aukera ikaragarria da gazteentzat, beste gazte batzuekin harremantzeko. Adibidez, pertsona bat ez duela hirian inor ezagutzen, etxea beste gazte batekin partekatzea asko lagundu ahal dio.



ORDAINKETAK

Ez da ikasketa-mailarik behar, ezta maila ekonomiko altu bat ere, baina hilabetero ordaindu ahal izateko gaitasuna izan behar du. Horretarako bezeroek kontratu bat sinatu beharko dute, non garaiz ordainduko dutela bermatzen duten. Gure logelen alokairuaren prezioa 450 eurokoa da, horregaitik gazteentzat ideia hoberena dela pentsatzen dugu, ere errekurto ekonomiko gutzi duten pertsonentzat aukera on bat izan daiteke.

